



## Gloria Múgica Conde

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko  
zuzendari nagusia

2021eko iraila

Lagun hori,

Zugana jotzen dut jakinarazteko 2021eko azaroaren 15ean eta 16an Merkalan-Enplegu eta Prestakuntza Azokaren bigarren edizioa egingo dela, Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak antolatua. Edizio hau nagusiki birtuala izango da. Eta xede du lan-aukerak eta enplegua sortzen duten enpresak proiektatzeko plataforma izatea. Azoka Gasteizko Europa Jauregian egingo da, Lan eta Enplegu Sailak antolatutako Enpleguaren Nazioarteko IV. Biltzarrarekin batera.

Bigarren edizio honetan pandemiaren egungo egoerak eragina izan du. Hala ere, uste dugu zailtasun horiek ezin gaituztela geldiarazi. Hori dela-eta, ekitaldi hau antolatu dugu. Eta bertan enpresek (stand birtual baten bidez) parte hartu, interakzioan aritu eta onlineko elkarrizketak egin ahal izango dituzten enplegu-eskatzailleekin. Halaber, enpresaren berri eman dezakete; eta horretarako onlineko aurkezpenak egin balizko interesdunei. Gainera, Europa Jauregian, gune propioa sortuko da, azaroaren 15ean eta 16an, non enpresek, nahi izanez gero, aurrez aurreko lan-elkarrizketak egin ahalko dituzten.

Ondo dagiku irtenbide teknologikoen egungo egoera enpleguaren mundua eraldatzen ari dela, eta **enpresek erantzun azkarrak eskatzen dituztela; egungo garaietara** eta merkatuaren eskakizun berrietara **egokituak**. LANBIDEn **zerbitzu eta programa berritzaileen katalogo zabala dugu, enpresen eskaeretara eta merkatuaren eskakizunetara egokitua;** bai eta hainbat profil profesional ere, Merkalanen, enpresen eskura jarriko ditugunak, haien artean beren egoera eta beharretara hobekien egokitzen diren hautagaitzak aurki ditzaten.

Ekitaldi honetan parte hartzera animatzen zaitut, enpleguaren eta prestakuntzaren arloan dituzun beharrak ezagutu eta horietakoren bati erantzun ahal izateko.

Azokaren xehetasun guztiak [www.merkalan.eus](http://www.merkalan.eus) estekan kontsulta ditzakezu.

Ekitaldian Europa Jauregiko COVID-19ren protokolo guztiak aplikatuko dira.

Adeitasunez,